

# SANMARTZIALAK

## IRUN 2023

BIDASOA.HITZA.EUS

OARSOALDEA.HITZA.EUS

**L**uze, oso luze joango dira aurten Irungo festak, San Pedro eta San Martzial jaiak. Izan ere, festa aroaren hasiera ofiziala hilaren 23an izango bada ere, gaurtik bertatik izango dira egitarauaren barruko jarduerak. Horien artean, musikari entzutetsuen kontzertuak. Uztailaren lehen egunean bukatuko dira festak, Baserritarren Eguna-rekin.

Irungo festetako ekitaldi zentralak, ordea, hilaren 30eko Alardeak izaten jarraitzen du. Aurten ere bi izango dira. Alarde Parekideak 27.enez egingo du desfilea, aurten, gainera, konpainia berri batekin: San Migel auzoak bere talde propioa izango du lehenengoz, beraz, esan daiteke aurtengo alarde ez baztertzaila inoizko handiena izango dela.

Iaz, aurrera urrats esanguratsua izan zen Alarde Parekidean: lehenengoz, udal ordezkari baten eskutik jaso zuen hiriko bandera. Aurten, maiatzaren 28ko udal hauteskundeen ondoriozko gobernu taldeen birmoldaketarekin, ikusi beharko zer gertatzen den. X



Beti errespetuz  
eta txukun...

**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

...ongi pasa  
Sanmartzialak!

*Irunen eta Beran*

*aurkituko gaituzu*

943 63 45 36

[www.goieko.com](http://www.goieko.com)



Miren Etxebeste udal ordezkariak bandera eman zuen momentua. A.A

# Ongi etorrien eta ia agurren Alardea

**Alarde Parekideak desfile berezia du aurretik. Aurten, hamabi konpainia izango dira, San Migel sortu delako. Beste bik, Zalditeriak eta Artilleriak, murrizketekin egingo dute ibilbidea.**

## ALAINE ARANBURU

**B**orrokan. Borrokan segitzeko beste San Martzial egun bat du aurretik Alarde Parekideak. 27 urte atzera begiratuta, bi Alardeek desfilez dutenetik udalaren partetik errekonozimendu bakarra jaso du Alarde Publikoak, eta iaz izan zen Miren Etxebeste orduko Berdintasun ordezkariaren eskutik: Irungo bandera eman zion alarde ez baztertzailari. Gaurko egunez ezin da jakin udal gobernuaren ekainaren 30ean eta datozen lau urteei begira nola eratuta egongo den, baina Alardearen auzia konpontze aldera politikak egiten segi beharko du udalak.

Udal gobernuaren aldaketak aurrera segitzeko balio dezake, edota Jose Antonio Santanoren bideari berriz eustea eragin dezake, hau da, harrerarik ez egitea. Iaz, «oso pozik» agertu ziren parekideko kideak emandako aurrerapauso-arekin, «pauaso txikiak dira, baina aurrera egiteko asko balio dute», aintzatetsi du Arkaitz Martinez Alarde Parekideko batzarreko kideak. Udaletxeko balkoian pandemia aurreko irudia errepikatuko balitz auzia «atzerantz» joango zela uste du Alarde Parekideak. Martinezek argi du dagoeneko ikusi dela denbora pasatzen uztearekin ez direla gauzak konpontzen, «eta urte gehiegi pasa dira».

Alardearen batzarraren barruan pil-pilean dagoen gaia dela aitortu du batzarkideak, baina, oraingoz, ez dute inolako berririk izan. Jakin dute udalaren barruan ere gaiak hitz egiten ari direla,

Ongi pasa Sanmartzialak  
**ALDAKETA** Psikogunea  
**PSIKOLOGIA ETA HEZKUNTZA**  
**HAURRAK-NERABEAK-HELDUAK-BIKOTEAK**  
**Olatz Elizondo Cuñado** - PSIKOPEDAGOGOA -  
**Maite Elizondo Cuñado** - PSIKOLOGOA -  
**Luis Mariano 4- 1.B - 20302 IRUN - 943 631 572 / 664 422 440**

**SANMARTZIALETAKO**  
 ekitaldi guztiak  
 egunez-egun  
**KLIK batean!**

[bidasoa.hitza.eus/agenda](http://bidasoa.hitza.eus/agenda)



eta oroitarazi du udalean Alardearen gatazkari konponbidea bilatzeko mahai politiko bat eratuta dagoela. Ez da kontseilu erabakitzaile bat eta, hortaz, udalbatzako alderdien ordezkariak biltzen dira soilik. Martinezek adierazi du haiengana EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos-Ezker Anitza alderdikoak joan direla mahai horren bueltakoak azaltzera, eta horrela jakin dutela udalean aztertzen ari direla harreraren gaia. «Iaz, azken momentura arte bazirudien alkatea agertu behar zela, baina ez zen hala izan. Aurten, zoritxarrez, beti bezala gaude». Martinezek mahai gaineratu du martxoan Alardea udalak berriz ere antola dezala egindako eskakizuna: «Ez dugu erantzunik jaso». Gogaikarriena erantzun eza dela esan du, «alkateak gu existituko ez bagina bezala jokatzeko du».

### Berritasunak: agur eta ongi etorri

Aurten 7/2023 Legea, martxoaren 28koa, onartu dute, animalien eskubideak eta ongizatea babesteko asmoz. Horrek Alardearen antolakuntzan eragina izango du. Izan ere, animaliekin desfilatzeko «jendetza, zarata eta musika» ekidin behar dituzte, «esan daiteke hori dela San Martzial jaia», azaldu du Martinezek. Oraintxe faktore horiek nola saihestu eta zaldien eta astoen parte hartzearekin nola aurrera egin lantzen ari dira.

Bide horretan, memoria bat landu dute, lege horren pean nola jardungo duten zehazten duena. Hori aldundiari bidaltzea dute asmo. «Animaliak Urdanibia plazatik atera beharko ditugu. Agian gauza batzuk ezberdin egingo dira, esa-

### HILAK 28

**20:00.** Kantineren Eguna. Urdanibia plazatik aterako dira Junkal plazatzora. Txapel gorria eraman behar da.

**20:15.** Kantineren aurkezpena.

### HILAK 29

**20:00.** Danborrada eta Bandaren entseguak Urdanibia plazan.

### HILAK 30

**05:45.** Alborada Erromes plazan.

**06:00.** Diana, Junkal plazatzxoa.

**10:15.** Arrankada San Martzial kalean.

**17:00.** Arrankada San Martzial kalean.

terako, zutik, animaliarik gabe». Lehen urte hau «esperimentua» izango dela dio batzarkideak eta, batez ere, denbora epeekin daude adi: «Horrekin oso zorrotzak dira. Goizeko desfilean ez dugu arazorik ordutegia betetzeko, baina arratsaldean bai. Leku estuetan, adibidez, banaka joan behar gara, eta musikatik urrundu. Moldaketa hauekin dena poli-

kiago joango da, eta denbora gehiago beharko dugu desfilatzeko. Zaila izango da». Hilaren 30a pasata egingo dute balorazioa. «Jaietan animaliekin jarduerak egitea zaila izango da aurrerantzean».

Berritasuna ere bada San Migel konpainia sortu dela aurten, «ilusioz beteta» daude. Batzarkideak konpainiaren sorrerari buruz esan du «indar pila bat» eman diela Alarde Publikoko kideei, «baita freskotasuna ere». Gogorazi du duela 27 urte hasitako bidea, «orain hasten ari direlako. Denak alai, pozik, gogotsu. Urte berezia izango da».

Era berean, lehen aldiz erasoen kontrako protokoloa ondu dute Alardearen batzarrean. Protokolo hori Alarde Parekidearen orrialdean argitaratuko dute eta horren berri sare sozialetan ere emango dute. Bestetik, batzordeak jakinarazi du ehiza armak dituztenek ezingo dutela desfilatu eta, era berean, gogorazi dute ibilbidean zehar ezin direla tiroak bota. Egitekotan, araua hautsi dutenen pe geratuko da ardura. ✕

## KANTINERAK

# «'Kantinerero'-rekin oposiziorik ez, baina zalantzak bai badaude»

**XABIER KEREXETA ETA MAGGIE BULLEN**  
HISTORIALARIA ETA ANTROPOLOGOA

'Kantiniersa vs kantinerero: izena eta izana' hitzaldia eskaini berri dute, ikuspegi historiko eta antropologiko feministatik, Alarde Parekidean gizon batek kantinera interpretatzeak eragin duen interesagatik.

**ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN** IRUN

**Kantiniersa vs kantinerero: izena eta izana hitzaldia eskaini zenuten pasa den astean. Nolatan sortu zen hitzaldi hori egitearen asmoa? Zein da funtsa?**

**XABIER KEREXETA:** Duda sortu da nola deitu behar diogun kantinerari gizonetako denean, baina kantinerarena egiten duenean: kantinera edo kantinerero? Ipar Euskal Herrian, euskaraz generoa ongi markatzeko, kantiniersa esaten dute. Frantseseko *cantiniere*, kantinier bezala itzuliko bagenu, ez zen argi geratuko. Hitz-joko hori egin nahi genuen aurten eman den errealitate hori azaltzeko, eta ulertzeko aspalditik datorrela figura ko-reografiko hau.

Nire kasuan figura historikoa azaldu dut. Gero, figura folkloriko gisa gurean *kantinera* esaten duguna finkatu da, eta

horren eboluzioaz aritu ginen. Azkenean, historia ez dira batailatxoak soilik, prozesu luzeak eta aldaketak ere badira. Hori nabarmendu nahi nuen, kantineraren figurak kantinerora iristeko eboluzio bat izan duela.

**MAGGIE BULLEN:** Generoarekin jokoa ere badago, Xabierrek adierazi duen bezala, gaztelaniazko *-a* eta *-o* atzizkiekin. Euskaraz ez dago hainbesteko arazorik, baina hizkuntzak berak erakusten digu nola markatzen duen generoa, eta gero zalantzan jartzen du. Jokoa dago generoa zer den. Eta zergatik lotzen dugu emakume izateko modu bat edo gizon izateko modu bat rol batekin, gure Alardean eta folkloean orokorrean?

**Generoaren gaia pil-pilean dago, batez ere, gizon bat izango delako kantinera. Hitzaldiaren gaietako bat izan zen naturaltasunez jorratu behar dela gaia.**

**X. K:** *Naturaltasuna* oso hitz polita da, baina oso kontuz erabili beharrekoa. Badaude gauza naturalak, baina berez dena kulturala da gurean. Hau da, natura nola ikusten dugun, eta nola jokatzeko dugun naturaren aurrean kontuan hartu behar da. Hori izango litzateke kultura, sakondu gabe. Baina hemen esaten dugunean *naturaltasunez*, kuestionatu gabeko naturaltasunaz ari gara. Gauza batzuk horrela etorri zaizkigu eta, kasu honetan, *naturaltasuna* hitza erabili dugu Antxonnen [Jauregi Vidal, San Migel konpainia parekideko kantinera] kasuan. Behintzat, askorik ez da kuestionatu, edo hauts askorik ez da harrotu. Pentsa duela 27 urte zer gertatu zen emakumeak kantinera ez beste paperetan sartu nahi izan zutenean.

**M. B:** Antropologiatik pixka bat saihesten ditugu *natural*, *natura* eta *naturaltasun* hitzak, betidanik kontrakoa ulertu izan delako. Hau da, kultura natura dela. Generoa eta sexua bezalakoa da hori, hau da, sexua naturala dela eta generoa soziala dela esatea bezala da. Baina egun badakigu sexua eta natura ere eginak, asmatuak direla.

Oso arrunta da esatea «gauzak gertatu behar dira modu natural batean», baina nik ez dut hala sinesten. Gizakiok dena asmatzen dugu. Gauza bera gizonen edo emakumeen kasuan. Hitzaldian enfasia jarri nuen pertsonan. Justuki, gaur goizean egon naiz irakurtzen Argia-ren gehigarri bat Monique Wittigi buruzkoa, eta aurrekoan aipatu nuen Simon de Beauvoirren esaldia ekarri zuten: «Emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da».







Alaine Aranburu

Baina Wittigek «emakumea ez da jaiotzen» esaten zuen, eta hor moztu egin zuen esaldia. Berak defendatzen zuen lesbiana izatea erabat ezberdina dela, eta emakumea egin egiten dela, baina emakume klase bat soilik; errealitatean badaudela emakume pila bat. Berak puskatu nahi zuen eredu hori: «Ez da jaiotzen, baina egin egiten da, eta berak ez zuen hala egin nahi». Lesbiana esateko moduari buruz ari zen, baina nik esango nuke nahi dugula aukera izan gizon, emakume edo pertsona modu anitzean esateko.

### Kantineraren figuraren jatorria ezezaguna da. Zer da kantinera bat?

**M.B.:** Zergatik kantinerak sortzen du arazoa, eta ez Alardearen beste figura batek? Kantinerak paper koreografiko bat baino askoz gehiago sinbolizatzen du. Esaten du zerbait emakumeon ereduari buruz, gizarteari buruz, gizarte harremanei buruz, botere harremanei buruz... Kuestionatzen baduzu kantinera, kuestionatzen duzu ez bakarrik Alardearen sistema, baizik eta gizartearen genero sistema ere. Erori egiten da gizartearen genero sistema. Sartzen baduzu

kantinerero bat kantineraren lekuan, horrek zalantzan jartzen du Alardean islatzen den genero sistema. Gertatu egin da, eta hainbat zalantza dauzkagu.

Nahiz eta Antxon atera eta onartuta egon, eta prozesu jarraitu bat izan duen, beste guztiak bezala. Alarde Parekidearen aldeko izateak ez du esan nahi kantineroen aldeko direnik. Agian oposiziorik ez, baina zalantzak bai, badaude. Feminismoan trans gaia mahai gainean dago, eta sortzen ari da frikzio bat. Hitz egin beharreko gauza da, ez gaudelako ados. ✕

*Zure konfiantzazko optikan zaude!!*

- Gure optikan beharrezko balorazio optometrikoa egiten dizugu. Gainera, zure ikusmen arazorako aholku pertsonalizatua emango dizugu
- Marka ezberdinetako gamma zabala armazoietan
- Prezio eskuragarriak urte guztian
- Aldi-kako azterketak garrantzitsuak dira gaixotasunak saihesteko
- Haurrentzako azterketak eskola porrota ekiditeko
- Terapija bisuala

**bidasoa**  
optika

www.bidasoaoptika.es

IRUN - Nafarroa Etorbidea, 21 - 943 63 01 93 - 605 70 84 34  
info@bidasoaoptikayaudio.com



# Hiriko musika taldeak, Mosku girotzeko prest

**Zarata eta Ankerra taldeak dira hiriko jaietan Urdanibia plazako oholtzan arituko diren Irungo taldeak. Zaratak hilaren 23an joko du 22:30etik aurrera, eta Ankerrak, hilaren 24an, ordu berean.**



MIKEL DEL VAL

A tzerak kontaketa bukatu da: hemen dira 2023ko San Pedro eta San Martzial jaiak. Irungo Udalak eta hiriko eragileek gustu eta publiko guztiak aintzat hartu dituen egitaraua ondu dute, gaurtik (hilak 16) uztailearen 1era arte luzatuko dena. Proposamenen artean, nola ez, musika ikuskizunak daude. Udalak adierazi du «bertako talentuek eta talde ospetsuek» osatzen dutela musika programazioa. Kontzertu horietako batzuk Urdanibia plazan izango dira, eta Moskuko oholtzara igoko diren musika tal-

deen artean bi hirikoak dira, etxeokak, eta dena emateko prest daude: Zarata eta Ankerra.

HITZA bi taldeekin bildu da jaietan atarian, eta biek ala biek onartu dute «gogotsu» daudela oholtzara igo eta Mosku plaza girotzeko. Zarata bost kidek osatutako musika taldea da. Xabi Peña da kideetako bat, eta esan du «betiko punkean» murgiltzen direla. «Zarata egiten dugu, gure izena hortik dator. Bertsio batzuk ere egiten ditugu; esaterako, La Polla Records, Eskorbuto edo RIP taldeenak». Zarataren antzera, Ankerra bost kidek osatzen dute, eta adierazi dute rocka eta heavya direla jorratzen dituzten musika estiloak.

Zaratako Xabi Peñak aitortu du «sekulako ilusioa» egiten diela hiriko jaietan jotzeak. Oroitarazi du duela lauzpabost urte jo zutela lehen aldiz sanmartzialean, eta «primeran» pasa zutela. Aurten esperientzia hori errepikatzeak aukera izango dute, eta «oso pozik eta gogotsu» daudela onartu du.

Ankerrako Odei Garcia Peñaren ildotik mintzatu da, eta adierazi du eurentzako «dena» dela hiriko festetan aritzea: «Txikitatik bizitako jaietan parte hartzea guretzako dena da, ohore bat».

Zaratak hilaren 23an (ostirala) hartuko du Mosku plaza, 22:30etik aurrera, eta Neomak taldearen telonero izango dira. Ankerra, aldiz, hilaren 24an (larun-



**atrezzo**  
marko denda

*Gora San Martzial*

[www.atrezzo.eus](http://www.atrezzo.eus)

Geltoki kalea, 13 - ☎ 943 617 298 - Irun





Ezkerretik eskuinera: Ankerrako Andrea Viñuela, Odei Garcia eta Mikel Muñoz, eta Zaratako Xabi Peña Urdanibia plazan, ohol-tza jarriko duten lekuan. M. Del Val

bata igoko da Urdanibia plazako ohol-tzara, 22:30etik aurrera, eta Huntza taldearen aurretik izango da haien emanaldia.

Moskura jendea bertara dadin nahi dute bi taldeetako kideek, eta kontzertuekin jendeak «ondo pasatzea» da haien helburua. Peña ziur da «kontzertu on bat» eskaini nahi dutela, horretarako entseatzeko baitute: «Gauzak ondo egin eta prestatu nahi ditugu, gozamina baita. Guk lehen aldiz jo genuenean hurrengo egunetan jendeak esaten zigun kontzertua gustatu zitzaiela, eta urte osoa entseatzeko eman ondoren, kontzertu on bat ematea eta gauzak ondo egitea polita da».

#### PARTE HARTZE PROZESUA

Apirila bukaeran, Irungo Udaleko Kultura arloak San Pedro eta San Martzial jaien programaren barruan hiriko zein taldek joko zuten erabakitzeke prozesu parte hartzaile bat abiatu zuen. Lehiaketa horretara Irungo bederatzi musika talde aurkeztu ziren, tartean Zarata eta Ankerra. Udalak galdetegi bat ireki zuen musika talde horiek hautatzeko, eta 2.703 irundarrek hartu zuten parte prozesu horretan. Orotara, 3.284 boto zenbatu ziren, eta Zarata eta Ankerra izan ziren bozkatuenak. Zaratak 716 boto jaso zituen, eta Ankerrak 500.

Bi taldeetako kideek nabarmendu dute «asko eskertu» dutela jendearengandik izandako babesak. Ankerrako Mikel Muñozek onartu du «ilusioz» dardela jendearen botoak jaso dituztelako, eta egiten duten «esfortzua errekonozitu» dutelako. «Asko bete gaitu hautatuak izateak», aitortu du Muñozek. Peña ere jendearen babesak eskertu du, eta gertaera bitxi bat kontatu du: «Jendearekin topo egin dugu kalean eta esan digute bozkatu gaituztela. Horrek ilusioa ematen du, polita da».

**«Txikitatik bizitako jaietan parte hartzea dena da, ohore bat»**

**«Urte osoa entseatzeko eman ondoren, kontzertu on bat ematea eta gauzak ondo egitea polita da»**

tu» dutelako. «Asko bete gaitu hautatuak izateak», aitortu du Muñozek. Peña ere jendearen babesak eskertu du, eta gertaera bitxi bat kontatu du: «Jendearekin topo egin dugu kalean eta esan digute bozkatu gaituztela. Horrek ilusioa ematen du, polita da».

#### MUSIKA TALDEEN EGOERA

Egungo musikaren egoeratik galdetuta, Zaratako eta Ankerrako kideak ez daude itxaropentsu. Peña esan du Irunen badaudela musika taldeak, baina kopuru hori asko jaitsi dela. «Lehen talde gehiago zegoen. Geroz eta talde gutxiago ikusten ditut orokorrean Euskal Herrian», esan du. Horrez gain, kontzertuak antolatzea edo horietan parte hartzea geroz eta zailagoa bilakatu dela azaldu du: «Bizilagunak kezkatzen dira, baimenak lortzea zailagoa da...».

Ankerrako kideek ere ziurtatu dute geroz eta talde gutxiago dagoela, eta, gainera, musika estiloak eta gustuak asko aldatu direla. ✕



kabigorri

Peña kalea, 1 - Irun  
www.kabigorri.org

Ondo pasa  
jaiak  
berdintasunean



# PROPOSAMENAK

## HASIERA OFIZIALA

**Hilaren 23an.** Aurretik ekitaldiak badaude ere, San Pedro eta San Martzial jaiak ofizialki hilaren 23ko ilunabarrean hasiko dira Kemenen soka-dantzarekin (20:45), agur ofizialarekin (21:30) eta alkatearen su-piztearekin (21:45). Hortik aurrera, uztailaren 1era arteko festa.



Alaine Aranburu



**EGITARAU  
OSOA  
HEMEN**

labur.eus.bidasoaagenda

Imanol Saiz



## KUADRILLEN EGUNA

**Hilaren 24an.** San Joan Egunarekin dator aurten Betti Gottiren Kuadrillen Eguna. 09:00etan herri gosaria egingo dute Urdanibian, 10:00etan San Martzial kalean goitibehera txapelketa, eta 14:30ean bazkaria Ficoban. 20:30ean, buelta erdigunera.

HITZA



## GAZTE GUNEA

**Hilaren 17an, eta 25etik 27ra.** Gazte-entzako gune seguru eta erakargarria jarriko dute aurten ere Santiagoko Euskal Jai pilotalekuan, Gazte Gunea. Lau egunetan izango da zabalik, eta euskarazko jarduerak izango dira han gehienbat.

# Labe Gorri

Okindegia  
Gozotegia

ORE AMAREKIN  
EGINDAKO OGI  
BIOLOGIKOETAN  
ESPEZIALITATEA

Foru karrika 13, Irun. Tel.: 943 54 37 66

Aizpea Amas



## BASERRITARREN EGUNA

**Uztailaren 1ean.** Goiz-goizetik arratsera arte Baserritarren Eguna Urdanibia plazan: ganadu feria, herri kirolak, dantza solte txapelketa, bertsolariak, pilotarien partida Urazun... Denetik, sanmartzialen azken egunean.

## LEIRE IZTUETA

Kiromasajea & Estetika

**Gora Sanmartzialak!!**

Aurretiko zita:

722 244 388

leireizqui@gmail.com





BISITA EZAZU  
**BIDASOKO**  
**HERRIETAKO FESTA**  
**ETA EGUN BEREZIEN**

ATALA



<https://labur.eus/festakbidasoa>



TXINGUDIKO ZERBITZUAK  
 SERVICIOS DE TXINGUDI

**Ospatu  
 primeran  
 eta zaindu  
 ingurumena!**

Gozatu jaiak arduraz  
 eta birziklatu.



**BIDASOS** 2030